

Atalaia

La lettre du CPIE Littoral basque
CPIE Euskal Itsasbazterraren **aldizkaria**



CPIE Littoral basque - Euskal Itsasbazterra

Larretxea - Domaine d'Abbadia - 64700 Hendaye / Hendaia

tel: (00 33) 5 59 20 37 20 - cpie.littoral.basque@hendaye.com - www.cpie-littoral-basque.eu

#22

sommaire aurkibidea

Sarhitzza Édito	2
CPIE merkatuan Le CPIE au marché	3
Txinbadia*	4
Karrikako basak Sauvages dans ma rue	6
Erlategi pedagogikoa Rucher pédagogique	8
Geologia denentzat! Géol pour tous !	10
Opor bereziak Vacances originales	13
Lilly Lulay	14
Zuhaitza	16
Pierre Grangé-Praderas ..	18
Ohiz kanpoko baratzea Jardin hors du commun...	20
Nerabe xintxuketariak Ados bricolos	21
Lehen aldia... Une première	22
Naturalistaren txokoa Le coin du naturaliste.....	24



Atalaia #22

bulletin de liaison du
CPIE Littoral basque

Photos

Couverture: Bernard BAYLE
CPIE Littoral basque

Directrice de publication:

Laurence Lassallete

Coordination: Ganix Grabières

Date de diffusion: septembre 2016

N° ISSN: 2114-1851

Conception, réalisation et traductions

if diseinuk

05 59 93 05 61 - Uztaritze

www.if-matxikote.eus

info@if-matxikote.eus

Imprimé sur papier recyclé
avec encres végétales

Papera berziklatuan inrpimatu,
tinta begetalak baliatuz



Le mot de la Présidente

Laurence Lassallete, présidente du CPIE Littoral Basque

laurence.lassallete@gmail.com

Asporotsttipi somnole sous le soleil, les promeneurs viennent y chercher le calme, la fraîcheur...

et des réponses à leur curiosité...

...pendant ce temps, le CPIE poursuit ses activités : les animateurs ont conservé leur programme d'Escapades Nature, d'accompagnement culturel.

Les bénévoles s'activent : la Commission géologique organise à Asporotsttipi

- des permanences hebdomadaires auprès du public, pour une meilleure lecture de l'exposition sur le flysch ;
- des conversations géologiques au clair de lune ou des étoiles ;

la Commission Vie associative part à la rencontre du public pour faire déguster le sagarno

- en juin, lors du Sagarno Eguna parmi les associations hendayaïses,
- en août, pour le marché Gastronomique sur la Place de la République

...en attendant les festivités sur le Domaine :

- le 25/09 : Fête de la Corniche
- le 09/10 : Les 30 ans de l'association avec une balade en bateau et un repas animé à Xaia... il est encore temps de s'inscrire pour le repas !
- les 15 et 16/10 : Prentsaketa, Fête de la Pomme à Nekatoenea.

Je vous souhaite une belle fin d'été...

Lehendakariaren hitza

Laurence Lassallete, CPIE Euskal Itsasbazterraren lehendakaria

laurence.lassallete@gmail.com

Asporotsttipi erdi lo dago eguzki pean, ibiltariak helburu ezberdinek erakarrira hurbiltzen zaizkiola: lasaitasuna, freskura...

eta beren jakin minari erantzunak...

...bitartean, CPIEk bere ekimenak segitzen ditu: animatzaileek kultura laguntzarako Natura Itzurdien egitaraua atxiki dute.

Laguntzaileek ekinean dihardute: geologia batzordeak, Asporotsttipin

- den flyscharen erakusketaren irakurketa hobe baterako argibideak ematen ditu as-tan behin bertan egonez;
- Ilargi edo izar peko geologia solasaldiak antolatuz;

Elkarte Bizia batzordeak jendearengana jotzen du sagarno dasta arazteko

- ekainean, Hendaiko elkarteekin batera Sagarno Eguna kari
- abuztuan, Errepublikaren plazako Gastronomia merkatuan.

...Eremuko festa hitzorduen bitartean:

- irailaren 25an: Erlaitzaren festa
- urriaren 9a: elkartearen 30. urtemuga it-sas-ibilaldia eta bazkari alaitua Xaian... bazkarirako izena emateko garaiz da oraindik!
- urriaren 15 eta 16a: Prentsaketa, sagarra-ren festa Nekatoenean.

Uda amaiera ederra opa dizuet...

Le CPIE fait son marché

Laurence Lassalette
laurence.lassalette@gmail.com

Des bénévoles de la Commission Vie Associative ont tenu un stand au Marché Gastronomique organisé par Hendaye Tourisme et Commerce, les 7 et 21 août, sur la Place de la République à Hendaye.

C'était l'opportunité de faire connaître le vin de pomme d'Abbadia, de parler de sa fabrication, et de le déguster !

Le jus de pomme a fait l'unanimité, le sagarno a suscité plus de surprise chez les dégustateurs :

..."non, ce n'est pas du Loïc Raison...cependant, il accompagne bien ce petit jambon, vous le fabriquez aussi ?..."

Le marché nous a permis de vendre quelques bouteilles de la récolte 2014 ; les acheteurs ont découvert un site, une association, une activité, nous avons partagé leurs histoire et origine.

Une expérience à renouveler !

Merci à Txomin, Manue, Maite, Joana et Jeanette !



Milesker Txomin, Manue, Maite, Joana eta Jeanette !

CPIE merkatuan

Laurence Lassalette
laurence.lassalette@gmail.com

Elkarte Bizia Batzordeko boluntario batzuk mahai bat atxiki zuten abuztuaren 7 eta 21ean Hendaye Tourisme et Commerce-k Hendaiaiko Errepublikaren Plazan antolatutako Gastronomia Merkatuan.

Abbadiako sagarno ezagutarazteko, honen ekoizpenaz mintzatzeko eta dasta arazteko aukera izan zen!

Sagar jusak guztien adostasuna bildu zuen, sagarnoak aldiz, sorpresa handiagoa eragin zuen dastatzailengan: "...ez, ez da Loïc Raison-en sagarno... haatik, urdaiazpiko gustagarri honekin ongi pasatzen da, zuek duzue ekoizten ere bai?..."

Merkatuan 2014ko uztaren botila batzuk saldu ahal izan genituen; erosleek eremu bat, elkarte bat, ekinbide bat ezagutu zuten, eta beren historiaz eta jatorriaz elekatu ginen.

Berritzekoa!

Clin D'œil...

Ganix Grabières
domaine.abbadia@hendaye.com

Comme toutes celles et ceux qui y sont venus, cette jeune - et totalement inoffensive - Couleuvre verte et jaune (*Hierophis viridiflavus*) repart visiblement satisfaite de sa visite à Asporotsttipi, la Maison de la Corniche basque...

Protégée, comme tous les reptiles, cette couleuvre est très abondante en Aquitaine mais par contre, au sud des Pyrénées, on ne la trouve quasiment qu'en Pays basque (Navarre comprise). Les recensements de reptiles effectués sur le Domaine d'Abbadia nous montrent qu'elle y est vraiment très présente. C'est sans doute l'une des raisons pour laquelle on observe moins de lézards verts dont elle est l'un des prédateurs...



Begi kliska...

Ganix Grabières
domaine.abbadia@hendaye.com

Etorri diren guztiak bezala, suge berde-hori gazte - eta batere gaitzik egiten ez duen - hau (*Hierophis viridiflavus*) Asporotsttipin Euskal Erlaitzaren Etxean egindako bisitatik aserik itzultzen da iduriz.

Babestua, narrasti guztiak bezala, suge hau ugari dago Akitanian, aldiz, Pirinio hegoaldean, kasik soilik Euskal Herrian aurkitzen da (Nafarroa barne). Abbadia eremuan egindako narrasti erroldak benetan presente dugula erakusten digute. Horregatik ditugu musker berdeak gutxiago ikusten, horren harrapakarietarikoa baita...

Txinbadia⁺

Pascal Clerc

cpie.littoral.basque@hendaye.com

Txingudi, Abbadia eremua eta Euskal Erlaitza mugaz haraindiko natura eremuen erabilpen publikoa eta babesa hobe bateratzeko euro egitasmoa

Ondoko orrialdeko argazkia:
Lankidetzat Batzordearen
bilkura Asporotsttipin,
Euskal Erlaitzaren Etxean,
Txinbadia⁺ egitasmoaren
abian jartzeko.

CPIE Euskal Itsasbazterrak, Itsasbazterren Kontserbatorioak, Pirinio Atlantiko-eko Departamendua, Hendaiako herria eta Eusko Jaurlaritzak gure ingurumenaren kudeaketa eta balioztatze publikorako lan egitasmo hau idatzi dute, elkarrekin.

Txostena POCTEFA 2014-2020ren lehen egitasmo deialdirako aurkeztua izan zen. Frantzia-Espainia-Andorra INTERREG egitasmoaren akronimoa da (FEDER). Hiru estatuen mugaldeko lurraldeen garapen iraunkorra bultzatzeko sortua izan den mugaz haraindiko elkarlanerako euro egitasmoa da. POCTEFA 2014-2020 mugaz haraindiko eremu honen integrazio ekonomikoa eta soziala indartzeko erkidegoko diru laguntzaren bosgarren belaunaldia da. POCTEFAk Pirinioen eta itsasbazterreko eremuen bi aldeetan kokatuak diren eragileek sortu eta kudeaturikoak, eta lurraldearen garapen inteligentea, iraunkorra eta inklusiboa babestuz pro-

graman parte hartzen duten mugaz haraindiko lankidetzarako egitasmoak diruztatzen ditu, partez.

www.poctefa.eu

Gure egitasmoa, lekuko baliabideen babesa, balioztatpena eta erabilpen iraunkorra bultzatu nahi dituen 3. ardatzean hartua izan da. Inbertsioaren lehentasuna, garapen iraunkorrerako hurbilpen bateratuen bidez gure ondarea balioztatze helburu bereziak hartuz, gure lurraldearen natura eta kultur ondarea babestea, balioztatzea eta garatzea da. Zehazki, hemendik 2018. urte amaiera bitartean europar laguntza honek ahalbideratuko dituen ekintzak honakoak izanen dira:

- Natura eremuetan eta beraien harrera lekuetan (Txingudi Ekoetxea, Asporotsttipi, Larretxea,



Txinbadia⁺

Pascal Clerc

cpie.littoral.basque@hendaye.com

Un projet européen pour mieux concilier l'usage public et la conservation des espaces naturels transfrontaliers, Txingudi, Domaine d'Abbadia, Corniche basque

Photo page suivante:
Réunion à Asporotsttipi,
la Maison de la Corniche basque,
du Comité de coopération
lançant le projet
Txinbadia⁺

Le CPIE Littoral basque, le Conservatoire du littoral, le Département des Pyrénées-Atlantiques, la commune d'Hendaye et le Gouvernement basque ont co-écrit ce projet de travail en matière de gestion et de valorisation publique de notre environnement.

Le dossier a été présenté au premier appel à projets du POCTEFA 2014 - 2020. Il s'agit de l'acronyme du Programme INTERREG Espagne-France-Andorre (FEDER). C'est un programme européen de coopération transfrontalière créé afin de promouvoir le développement durable des territoires frontaliers des trois pays. Le POCTEFA 2014-2020 constitue la cinquième génération de soutien financier communautaire destinée à renforcer l'intégration économique et sociale de cette zone frontalière. Le POCTEFA cofinance des projets de coopération transfrontalière conçus et gérés par des acteurs situés des deux côtés des Pyrénées et des zones littorales qui participent au programme en préservant la croissance intelligente, durable et inclusive du territoire.

www.poctefa.eu

Notre projet a été retenu dans l'axe 3 qui vise à promouvoir la protection, la mise en valeur et l'utilisation durable des ressources locales. La priorité d'investissement est de conserver, protéger, favoriser et développer le patrimoine naturel et culturel de notre territoire en visant l'objectif spécifique de valoriser notre patrimoine par des approches conjointes de développement durable.

Plus concrètement voici les actions qui vont être rendues possible d'ici fin 2018 par cette aide européenne :

- La mise en place et l'animation de groupes de travail transfrontaliers pour favoriser la formation des personnes qui travaillent sur les sites naturels et dans leurs maisons d'accueil (Txingudi Ekoetxea, Asporotsttipi, Larretxea, Nekatoe-ne). Il s'agira aussi d'améliorer ou de créer des outils pour les espaces d'accueil du public mais aussi pour la préservation des sites.
- La maison Larretxea va se transformer progressivement en centre ressources de territoire transfrontalier. Ce lieu sera constitué d'un espace documentaire, scientifique, technique et pédagogique accessible au public sur rendez-vous. Le

Nekatoenea) lanean diharduen jendearen heziketa bultzatzeko mugaz haraindiko lan taldeen sortzea eta animazioa. Bide beretik, jendearen harrera lekuetarako baita natura eremuen babeserako ere tresnak hobetzea edo sortzea izanen du helburu.

• Larretxea, mugaz haraindiko lurraldeko baliabide zentroa bilakatuko da pixkanaka. Leku hau, hitzordua hartuz gero, jendeari irekia izanen den eremu dokumental, zientifiko, tekniko eta pedagogikoaz osatuko da. Baliabide zentroak euskal itsasbazter osoan eraginen du ere, ingurumen datu basea eta datu base naturalistak sortzeko, eguneratzeko eta kapitalizatzeko ikerketa eta diagnosi ekologikoak garatuz. Garapen iraunkorraren apustuen kontuan hartzeko izapideetan (nautismo iraunkorra, laborantza-aniztasun biologikoa, geo-turismoa, garapen iraunkorraren astea...) lurraldea eta honen eragile indibidualak (ikerlariak, irakasleak, teknikariak...) zein kolektiboak (administrazioa, enpresak, laborariak, turismo egiturak...) lagunduko ditu.

• Nekatoenean, Artista etxeak arte eta kultura sentsibilizazio eta hezkuntzarako ekintza indartuko du. Egitasmoak eskaintzen den urteko egitarauari mugaz haraindiko izaera indartu dio eta lurraldean presentzia artistiko profesionala azkarki lagunduko du.

• Katalinkoenearen aldetik, Abbadia eremuan azkenik erositako eraikinaren geroa kolektiboki zehazteko gauzatzerako eta aurreikuspenarako azterketak burutuko dira. Behin zaharberriturik, etxeak biztanleei zerbitzu berriak eskaini beharko dizkie, jadanik plantan dauden beste egiturekin osagarritasunean.

• Asporosttipin, egitasmoak jendeari natura eremura hurbiltzeko erraztasunak eskainiko dizkio lekuaren ezaugarriak eta bertaratzen direnen



kopuruari egokiagoak liratekeen aparkaleku eta errepidea zeharkatze egokituagobaten antolaketaekin.

• Plaiaundiren aldetik, Txingudi badiako espezieen eta horien habitaten kalitatea eta kontserbazio egoera hobetzea helburu izanen duten ekintzak bideratuko dira. Eusko Jaurilaritzak erositako eremu batzuk "berriz naturatuko" dira, azken urteetako izapideen ildo beretik.

Mugaz haraindiko lankidetzak dinamika berri honek Txingudi badiako eta Euskal Erlaitzeko natura eremuak lurraldearen balioztapen partekaturako baliabidez, tresnez eta lan dinamikez hornitzea ahalbidertuko du, garapen lokala eta turistiko adeitsu eta iraunkor baten logikari.

www.txinbadia.eu



centre ressources agira aussi sur l'ensemble du littoral basque en développant des études et diagnostics écologiques pour constituer, actualiser et capitaliser des bases de données naturalistes et environnementales. Il accompagnera aussi le territoire et ses acteurs individuels (chercheurs, enseignants, techniciens...) ou collectifs (collectivités, entreprises, exploitants agricoles, structures touristiques...) dans leurs démarches de prise en compte des enjeux du développement durable (nautisme durable, biodiversité agricole, géo-tourisme, semaine du développement durable...).

• A Nekatoenea, la résidence d'artistes va amplifier son action artistique et culturelle de sensibilisation et d'éducation artistique et culturelle. Le projet permettra de donner une dimension en-

core plus transfrontalière au programme annuel proposé et de contribuer plus fortement encore à la présence artistique professionnelle sur le territoire.

• Du côté de Katalinkoenea, des études de faisabilité et de préfiguration vont être menées pour définir collectivement le futur de la dernière bâtisse acquise sur le domaine d'Abbadia. La maison une fois réhabilitée devra rendre de nouveaux services à la population dans une complémentarité avec les autres structures déjà présentes.

• Du côté d'Asporosttipi, le projet permettra d'améliorer l'accessibilité du public au site naturel avec la réalisation d'une aire de stationnement et d'une traversée de route plus adaptées

aux caractéristiques du lieu et à leur fréquentation importante.

• Du côté de Plaiaundi, des actions viseront à améliorer la qualité et l'état de préservation des habitats et des espèces de la baie de Txingudi. Certains parcelles acquises par le Gouvernement basque seront "renaturées" dans la continuité des démarches réalisées ces dernières années.

Cette nouvelle dynamique de coopération transfrontalière (2016 - 2017 - 2018) va permettre de doter les espaces naturels de la Baie de Txingudi et de la Corniche basque de moyens, d'outils et de dynamiques de travail pour la valorisation conjointe du territoire, dans une logique de développement local et touristique, respectueux et durable.

www.txinbadia.eu

Le 22 juillet 2015, l'Assemblée Nationale a adopté la loi de transition énergétique pour la croissance verte qui prévoit la mise en place de l'objectif zéro pesticide dans l'ensemble des espaces publics à compter du 1er janvier 2017. Il s'agit de l'interdiction de l'usage des produits phytosanitaires par l'État, les collectivités locales et établissements publics pour l'entretien des espaces verts, promenades, forêts, et la voirie.

La commercialisation et la détention de produits phytosanitaires à usage non professionnel seront interdites à partir du 1er janvier 2019. Cette mesure concerne tout particulièrement les jardiniers amateurs.

Les produits de biocontrôle, qualifiés à faible risque ou dont l'usage est autorisé dans le cadre de l'agriculture biologique peuvent être utilisés.



Plan de désherbage 0 phyto ! Accepter des sauvages dans ma rue ?

Pascal Clerc et Nicole Etchegoyhen
cpieittoralbasque.eedd@hendaye.com

Sur le littoral basque, à partir du 1er janvier 2017, toute utilisation de substance chimique pour le désherbage des rues sera interdite par réglementation nationale. La santé humaine est en jeu car les résidus de produits chimiques s'infiltrant dans les sols, ruissellent et finissent bien souvent dans notre verre d'eau ou notre eau de baignade.

La commune d'Hendaye a décidé d'anticiper et de se préparer à ces changements de pratiques. Il ne s'agit donc pas d'un défaut d'entretien de la voirie mais bien d'une protection contre les effets nocifs de la chimie sur nos organismes et sur la biodiversité.

Le CPIE Littoral basque accompagne la collectivité...

Tout changement provoque des questionnements, des interrogations. La population hen-

dayaise va donc être progressivement informée, sensibilisée aux nouvelles pratiques mises en place par les services municipaux. Le CPIE Littoral basque, structure hendayaise d'éducation à l'environnement et au développement durable, est chargée de l'animation locale de la campagne "Sauvages de ma rue" sur la commune en coordination avec le plan de désherbage 0 phyto.

Des plantes méprisées ou méconnues ?

Certains trottoirs hendayais changeront d'aspect en laissant place à des herbes folles injustement appelées "mauvaises herbes". Mais s'est-on vraiment posé la question de l'intérêt ou de l'esthétique de certaines de ces plantes ? N'agit-on pas par habitude en les arrachant ou en les pulvérisant systématiquement ?



2015eko uztailaren 22an, Pariseko Asanblea Nazionalak garapen berderako energia trantsizio legea onartu zuen. Legeak, 2017ko urtarrilaren 1.etik, eremu publiko osoan 0 pestizidaren helburua hartzen du. Honekin, Estatuak, lekuko administrazioek eta erakunde publikoek berde gune, pasealeku, baso eta bideen mantenurako gai fitosanitarioen erabilpena debekatua dute.

Lanbide erabilpenaz kanpoko gai fitosanitarioen merkaturatzea eta edukitzea debekatuko da 2019ko urtarrilaren 1.etik goitik. Neurri hau baratzezain amateurrei zuzendua da bereziki.

Arrisku apalekotzat sailkatuak edo laborantza biologikoaren baitan erabiltzeko baimenduak diren kontrol biologikorako gaiak erabiltzen ahal dira.

Euskal Itsasbatterean, 2017ko urtarrilaren 1.etik, karriken lurgorritzeko gai kimiko ororen erabilpena debekatua izanen da estatu mailako araubidez. Guzti-guztion osasuna dago jokoan, gai kimikoen hondakinak lurrean iragaziak baitira, ondoren, euritako urek lagundurik baso urean edo bainatzeko uretan bukatzeko.

Zero fito belar kentze plana! Karrikako basak onartu?

Pascal Clerc eta Nicole Etchegoyhen
cpieittoralbasque.eedd@hendaye.com

Hendaia herriak aurrea hartu eta joera aldaketa horietarako prestatzea erabaki du. Hortaz, ez da karriken mantenu akats bat, gure organismoekiko eta aniztasun biologikoarekiko kimikak dituen eragin kaltegarrien kontrako babesa baizik.

CPIE Euskal Itsasbatterak herria laguntzen...

Aldaketa orok galderak ekartzen ditu. Hortaz, hendaia herriko zerbitzuek plantan jarriko dituzten joera berriekiko informatuak eta sentsibilizatuak izanen dira pixkanaka. CPIE Euskal Itsasbatterak, ingurumena eta garapen iraunkorrerako hezkuntzarako Hendaia egitura gisa, herri mailako "Basak karrikan" kanpainaren lekuko animazioaren ardura dauka Zero fito belar kentze planarekin koordinazioan.

Mespretxatuak edo ezezagunak diren landareak?

Hendaia espalo batzuk itxuraldatuko dira "belar txar" izendapen bidegabea duten belar ero batzuei lekua utziz. Baina landare horieta-

rikoen interesa edo estetikaz benetan galdekatu ote dugu gure burua? Ez al gara ohituraz ari berauek erausterakoan edo sistematikoki lainotzatzerakoan?

Ez al genituzke ere "karrikako basak" deitzen ahal? Hori da zehazki maitasun-eskasez utzitako horien ezagutza hobetzeko eta onarpenerako sentsibilizazio egitarauaren izena.

Zientzia parte-hartzaileen estatu mailako izapidea

Natura Historiaren Museo Nazionalak gidaturiko zientzia herritarerako egitarau honek herritarrek hurbileko ingurumenean hazten diren landare espezieak ezagutu ahal izatea du helburu, egunerokoan karrikan, zuhaitz-ipurdienguruetan, espaloietan, belardietan ikusten dituzten landareak... botanikaz ideia izpirik izan gabe ere, beren esku utzitako tresna biziki sinpleen laguntzarekin, herritarrek karrikan hazten diren espezieen zerrenda osatzen ahal dute.

Ne pourrait-on pas aussi les appeler "Les sauvages de ma rue" ? C'est précisément le nom que porte ce programme de sensibilisation à une meilleure connaissance et acceptation de ces mal-aimées.

Une démarche nationale de sciences participatives

Piloté par le Muséum National d'Histoire Naturelle, ce programme de science citoyenne a pour but de permettre aux habitant-e-s de reconnaître les espèces végétales qui poussent dans leur environnement immédiat, les plantes qu'ils croisent quotidiennement dans leur rue, autour des pieds d'arbres, sur les trottoirs, dans les pelouses... Même sans aucune connaissance en botanique, grâce à l'utilisation d'outils très simples mis à leur disposition, les citoyen-e-s peuvent faire la liste des espèces qui poussent dans leur rue.

Une appli dédiée

Grâce à une application sur mobile, la démarche est très simple : on sélectionne un trottoir, on identifie une plante, on la photographie et les données sont envoyées directement aux chercheurs du Muséum National d'Histoire Naturelle.

Pour les personnes non équipées de ces outils numériques, on peut aussi relever ses observations sur des fiches papier récoltées ensuite par la structure animatrice de la démarche.

Améliorer la connaissance de la biodiversité

Les données récoltées arriveront dans les bases de données du Muséum national d'Histoire naturelle qui pourra les analyser. Elles permettront d'avancer sur la connaissance de la répartition des espèces en ville et sur l'impact de ces "brèches urbaines" sur la qualité de la biodiversité. Les données pourront éventuellement être fournies aux collectivités désirant en savoir plus sur leur diversité végétale.

Un mini-guide "Sauvages de ma rue, 12 espèces" disponible

Pour expliquer la démarche au public et pour faciliter la participation citoyenne, nous avons créé un dépliant qui permet à chacun de s'amuser à identifier les 12 espèces végétales les plus fréquemment rencontrées à Hendaye.

Saurez-vous les reconnaître ? Rien de plus facile avec cet outil disponible gratuitement à Asporotsttipi.

Programme d'animations locales

Le CPIE Littoral basque proposera durant toute l'année 2016 et en 2017, des animations à destination de publics diversifiés (habitant-e-s, scolaires, commerçant-e-s...). Toutes sortes d'actions seront proposées : animations sur trottoir-témoin, présentations publiques, aide à l'utilisation de l'application, projets pédagogiques, sorties botanique...

Certaines animations proposeront un apprentissage à l'identification de la flore urbaine, d'autres une découverte des vertus cachées des plantes sauvages et parfois les deux thématiques seront mêlées.

Les prochaines animations programmées auront lieu le 17 septembre lors de la Fête du quartier de Dongoxenia, le 25 septembre lors de la Fête de la Corniche, puis le 21 octobre lors de la journée du Flocon à la vague organisée pour les scolaires hendayais aux abords du centre nautique.

Appel à contribution

Toute personne intéressée par le sujet, botaniste ou pas, est invitée à se faire connaître auprès de Nicole Etchegoyhen : 05 59 20 37 20 ou cpilittoralbasque.eedd@hendaye.com.

Plus d'informations sur : <http://sauvagesdemarue.mnhn.fr/>

et page Facebook dédiée "Sauvages de ma rue Hendaye".



Horretara zuzenduriko aplikazioa

Sakelakoetarako aplikazio bati esker, izapidea ezin sinpleagoa da: espalo bat hautatzen da, landare bat identifikatzen da, argazkitan hartzen da eta datuak zuzenean Natura Historiaren Museo Nazionalako ikerlariei igorriak dira.

Tresna numeriko horien jabe ez direnentzat, datu horiek paperezko fitxetan bildu daitezke izapidearen egitura animatzaileari eman aitzin.

Aniztasun biologikoaren ezagutza hobetzea

Jasotako datuak Natur Zientzien frantses museo bidaliko dira azter ditzen. Hirian espezieek zein hedapen duten hobe ezagutzea, eta bioaniztasunaren osasunean "hiri arrakalek" duten eragina argitzea ahalbidetuko dute datu horiek. Baliteke baita ere datu horiek landare aniztasunean interesa duten tokiko administrazioen esku uztea.

Basa hirian, 12 espezie gidatxo eskura

Gure eginbidea azaltzeko eta herritarren parte hartzea errazteko eskuorri bat atera dugu edonork Hendaian usuen aurkitzen ditugun 12 landare espezieak identifikatzen ongi pasa dezan. Asmatuko zenuke horiek topatzen? Ez dago errazagorik Asporotsttipin doan izango duzun tresnarekin.

Tokiko animazio egitaraua

CPIE Euskal Itsasbatterak publiko ezberdientzako (biztanle, ikasle, dendari...) animazioak proposatuko ditu 2016. urte osoan zehar eta 2017an. Ekintza mota guztiak izango dira: lekukotza-espaloietan animazioak, aurkezpen publikoak, aplikazioa erabiltzeko laguntza eskaintza, proiektu pedagogikoak, irteera botanikoak...

Animazio batzuek hiriko lora identifikatzen ikastea proposatuko dute, beste batzuek basalandareen bertute ezkutuan ezagutzea eta hainbatetan bi gaiak elkarrekin josiko dira.

Hurrengo animazioak hauexek dira: irailaren 1ean Dongoxenia auzoko jaien kari, irailaren 25ean Erlaitzearen festaren kari, ondotik urriaren 21ean Hendaia ikasleentzat zentro nautikoaren inguruan antolatutako den *du Flocon à la vague* (Malutatik olatura) egunaren kari.

Partaide izan nahi duenarentzat

Gai honekiko interesa duen edonork, botanista izan ala ez, jo dezala Nicole Etchegoyhen-engana: 05 59 20 37 20 edo cpilittoralbasque.eedd@hendaye.com

Xehetasun gehiagorako : <http://sauvagesdemarue.mnhn.fr/>

edo facebook orrira: "Sauvages de ma rue Hendaye".

Erlategi pedagogikoa Abbadia Eremuan

Jon Frahier

cpieittoralbasque.patrimoine@hendaye.com

Beheko argazkian:
erlauntzen apainketa prestaketa
Pierre Grangé-Praderas
artistaren laguntzarekin.

Sozial izaera duen epe luzerako egitasmoa

Azken urteetan, Itsasbazterren Kontserbatorioa eta CPIE Euskal Itsasbazterra elkarlanean dabilta Abbadia eremua, bere aniztasun osoan, publikoari irekitzeko. Borondate partekatu honen oinarrian dugu egitasmo berri hau sortu, "Euskal Itsasbazterra denentzat" ekimenari emandako INTERREG POCTEFA TXINBADIA+ euro fondoaren laguntzari esker egikaritua.

Animatzaile elebiduna eta deituriko publiko "berezi"-ekin loturiko egitasmoen arduradun gisa, lurraldeko zenbait egitura sozial eta mediko-sozialekin harremanetan sartu naiz, horien artean Hendaiako Txingudi hezkuntza-zentro itxiarekin (HZI). Askotan berregile anizkoitzak diren adingabeak aterpetzen diren HZI horiek ohiko kokatze eta espetxeratzearen arteko erdibideko aukera osagarriak dira. Askatasun mugatuaren leku bat da, baina zedarriztaileak hezitzaile berezituak izaten dira, presondegiaren ez bezala. Hezitzaileekin, gazteak arduratzeko perspektibak irekitzen saiatzen diren egitasmoak osa daitezke batzuetan.

Lehen harremanen ondorioz sagarra gaitzat zuten animazio saio batzuk plantan jarri ahal izan genituen, sagardi kontserbatorioan. Horren ondoren, Jean-François Jouanny-k, HZiko hezitzaile berezituak, erlezain amateurra ere badenak, gazteekin erlauntzak kokatzeko gogoia adierazi zuen. Abbadia Eremuko sagardian erlategi pedagogiko baten kokatzeko kimua piztu zen... erlategi bat zeinen erlauntzen kokatzea eta erleen hazkuntza HZiko gazteen esku gertatuko zen!

Ci-contre: préparatifs pour la décoration des ruches avec l'aide du plasticien Pierre Grangé-Praderas

Un rucher pédagogique sur le Domaine d'Abbadia

Jon Frahier

cpieittoralbasque.patrimoine@hendaye.com

Un projet à caractère social sur du long terme

Depuis plusieurs années maintenant, le Conservatoire du littoral et le CPIE Littoral basque agissent pour ouvrir les portes du Domaine d'Abbadia à tous les publics dans leur plus grande diversité. C'est sur la base de cette volonté commune que s'est inscrit ce nouveau projet rendu possible grâce au soutien du Fonds européen INTERREG POCTEFA TXINBADIA+ apporté à l'action "Le littoral basque pour tous".

Animateur nature bilingue et responsable de projets avec les publics dits spécifiques, j'ai contacté plusieurs structures sociales et médico-sociales du territoire, dont le Centre Éducatif Fermé Txingudi à Hendaye. Structures où peuvent être placés des mineurs souvent multirécidivistes, les CEF constituent un dispositif

complémentaire et intermédiaire entre les solutions classiques de placement et l'incarcération. Il s'agit bien d'un lieu de privation de liberté, mais où les encadrants sont des éducateurs spécialisés et non du personnel pénitentiaire. Avec les éducateurs, il est parfois possible de monter des projets qui tentent alors d'ouvrir de nouveaux horizons aux jeunes en essayant de les responsabiliser dans un projet à long terme.

Les premiers contacts établis ont permis de mettre en place quelques séances d'animations au verger conservatoire autour de la pomme. Suite à cela, Jean-François Jouanny, éducateur spécialisé au CEF mais aussi apiculteur amateur a fait part de son envie de mettre en place des ruches avec ses jeunes. L'idée d'installer un rucher pédagogique au verger du Domaine d'Abbadia venait de naître... un rucher dont la mise en place et l'élevage des abeilles serait confiés aux jeunes du CEF !

De l'idée à l'action

Pour déclencher le projet une réunion a permis aux différentes parties impliquées d'évoquer ensemble les questions techniques et administratives.

Ont participé pour le Conservatoire du littoral Sébastien Lavigne, technicien gestion et aménagement et Ganix Grabières Conservateur du Domaine d'Abbadia, Jean-François Jouanny et Jérôme Anetas éducateurs au CEF et moi-même.

Deux conventions écrites permettent aujourd'hui de développer le projet, elles relient le CEF avec le Conservatoire d'une part et le CEF avec le CPIE d'autre part.

Depuis, Sylvain Rouyer, éducateur sportif, arrivé récemment au CEF et lui aussi apiculteur amateur, a intégré la dynamique.

Les différentes étapes du projet

Les jeunes ont d'abord aménagé un espace dans le verger pour y installer 4 ruches. Débroussaillage et taille de haies furent à l'honneur mais aussi utilisation d'outils, pioche et niveau pour niveler le sol. Ils ont ensuite rencontré Pierre Grangé-Praderas, artiste en résidence à Nekatoenea et apiculteur amateur lui aussi, pour expérimenter avec lui la pyrogravure, l'utilisation de pochoirs (comme pour le tag mais en brûlant

Idieiatik ekintzara

Egitasmoaren abiapuntu gisa, bilkura batean parte-hartzaile ezberdinek alde teknikoak eta administratiboak aipatu zituzten.

Itsasbazterreko Kontserbatorioko Sébastien Lavigne kudeaketa eta antolamendu teknikariak, Abbadia Eremuko Kontserbatorioko Ganix Grabières-ek, HZIko Jean-François Jouanny eta Jérôme Anetas hezitzaileek, eta niahurrek parte hartu genuen.

Idatzitako bi hitzarmenek egitasmoa garatzeko aukera ematen ziguten: bata HZI eta Kontserbatorioa lotzen ditu alde batetik, eta besteak HZI eta CPIE bestetik.

Geroztik, HZIra etorri berri den Sylvain Rouyer kirol hezitzailea, bera ere erlezain amateurra, dinamikara batu zitzaigun.

Egitasmoaren urrats ezberdinak

Lehen-lehenik, gazteek sagardian lau erlauntza kokatzeko eremua antolatu zuten; sastraka kentzea, hesi inausketa nagusiki, baita ere tresna batzuen erabilpena, aitzurra eta nibela lurra berdintzeko. Ondoren, Nekatoenean egonaldian, bera ere erlezain amateurra den Pierre Grangé-Praderas artistaren ezagutza egin zuten, eta berekin pirograbaketan saiatu ziren, txantiloiak baliatuz (Margoketentzat bezala baina marrazkiaren barnea errez margotu ordeztu). Helburua, egitasmoa eta erlauntzak ongi berenganatzea zen.

Behin instalazioa kokaturik Zuberoara joan ginen, Urdiñarbetik hurbil, erlezain batengana erlekumeen eskuratzerara.


Horrela, erleek beren aterpe berriaz jabetzen ari zirela, Asiako liztorraren kontrako zepoak eraiki genituen. 2016/2017 urte honetan, gazteak ingurumenaren zaintzarako nozio ezberdinei sensibilizatuak izanzen dira eta parte-hartzen segitzen ahalko dute. Horrela, erlezaintzan saiatuko dira, ezia bilduz besteak beste.

Aniztasun biologikoa, heziketa, parte-hartzea...

Ekintza hau CPIEren elkarte egitasmoaren adierazlea da, ondoko dimentsio ezberdinak biltzen baititu: aniztasun biologikoaren babesa, herritarren parte hartzea, ingurumenerako heziketa, kultura irekiera eta lekuko biztanleen ongizate soziala.

Espero dezagun erlategi pedagogikoak erleek oraindik luzaz gure natura eremua polinizatzen segi dezaten lagunduko duela, eta gazte parte-hartzaileek, beraie esker, itxaropenez beteriko geroa izanzen dutela.

Beheko argazkian:
Urdiñarben eskuratutako
erlekumea erlauntza berrira
sartzen.



l'intérieur du dessin au lieu de peindre). L'objectif était de bien s'approprier le projet et les ruches.

Une fois l'équipement installé, nous sommes allés en Soule, près d'Ordiarp pour récupérer des essaims d'abeilles auprès d'un apiculteur.

Les abeilles ont ainsi pris possession de leurs nouveaux gîtes et nous avons construit des pièges pour lutter contre les frelons asiatiques.

Cette année 2016/2017, les jeunes seront sensibilisés aux différentes notions de protection de l'environnement et pourront continuer de s'impliquer. Ils expérimenteront ainsi l'apiculture, en effectuant notamment l'extraction du miel.

Biodiversité, éducation, participation...

Cette action est représentative du projet associatif du CPIE qui intègre les différentes dimensions suivantes : protection de la biodiversité, participation citoyenne, éducation à l'environnement, ouverture culturelle et contribution au bien-être social de la population locale.

Ci-dessus: prise de possession
de leur nouvelle ruche
par les essaims
récupérés à Ordiarp

Gageons que le rucher pédagogique permettra aux abeilles de continuer à polliniser longtemps nos espaces naturels et que les jeunes impliqués retrouveront grâce à elles, un avenir plein de promesses.

Géol pour tous !

Quand le CPIE Littoral basque
accentue sa mission
de médiation scientifique

Depuis plusieurs mois, le CPIE Littoral basque développe une réflexion sur le patrimoine géologique local de la côte basque dans sa dimension transfrontalière. Cette action est menée en concertation avec différents acteurs du territoire et bénéficie du soutien du Conseil départemental des Pyrénées-Atlantiques et du Conseil régional Nouvelle Aquitaine.

En interne, une commission composée de bénévoles et de salariés fait vivre la démarche en faisant naître de nombreuses actions. Notre volonté est ainsi de contribuer à une meilleure connaissance et une meilleure protection de notre patrimoine interrégional et d'en assurer une valorisation publique responsable.

La démarche s'adresse à deux publics principale-
ment : la population locale d'abord qui doit s'ap-

propre de manière plus intense son patrimoine, en connaître l'importance... et ainsi avoir envie de le protéger ; la population visiteuse ensuite qui est désireuse de découvrir de manière différente et souvent "hors saison" le Pays basque sous des attraits dépassant la simple baignade estivale.

Mieux connaître le patrimoine pour mieux le protéger, mieux connaître notre pays pour mieux le faire découvrir.... Quelle ambition !

Bien entendu, voilà une mission importante et le CPIE Littoral basque ne compte pas la mener à bien seul, heureusement !



Azken hilabeteetan CPIE Euskal Itsasbatterrak euskal itsas hegiko geologia ondareari buruzko gogoeta darama, mugaz haraindiko izaera kontuan hartuz. Lurraldeko eragile ezberdinekin elkarlanean eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Biltzarra eta Akitania Berriko Eskualde Biltzarraren sustengua duen ekimena da.

Elkarte barnetik, boluntarioz eta langilez osaturiko batzorde batek izapidea bultzatzen du zenbait ekimen sortuz. Horrela, gure asmoa, eskualde arteko gure ondarearen ezagutza eta babesa indartzea, eta honen balioztapen publiko arduratsua bermatzea bada.

Izapidea bi publikoei zuzentzen zaie nagusiki: bertako biztanleei lehenik, lekuko ondarea era azkarragoan bereganatu behar dutelako, honen garrantziaz jabetuz... eta horrela babesteko gogoia piztuz; bisitariei bestetik, udako bainu

Geologia denentzat!
CPIE Euskal Itsasbazterrak
Zientzia bitartekaritzaren ardura
indartzen duenean

"Flysch en Sheeps" et "Le Jeudi c'est Géol !"

Depuis début juillet a été présentée à l'étage d'Asporosttipi cette exposition, véritable voyage dans le temps sur l'histoire de la vie sur la Terre, à la rencontre des fossiles et autres dinosaures. Une belle occasion pour le public de découvrir une approche scientifique et sensible de ce patrimoine avec la présentation d'œuvres de l'artiste Natacha Sansoz, accueillie en résidence de médiation à Nekatoenea en 2016, œuvres pour certaines réalisées dans le cadre d'un projet mené avec deux classes de BTS du lycée agricole de S'Pée sur Nivelles.

Tous les jeudis après-midi, un ou plusieurs bénévoles de la commission géologie ont assuré une permanence pour répondre aux questions du public désireux d'en savoir plus sur la formation du Flysch, des Pyrénées et de nos paysages de la Corniche basque.

Au total 298 visiteurs ont bénéficié de cet accompagnement dans la découverte de l'exposition.

"Conversation géologique un soir d'été"

A deux reprises cet été, nous avons animé des moments de rencontres conviviales et participatives sur le parvis d'Asporosttipi sur la thématique de la géologie et de l'astronomie. Deux magnifiques soirées de diffusion de la culture scientifique dans un cadre superbe au cours desquelles nos géologues ont eu l'occasion de parler de géologie "extra-terrestre", des liens avec notre planète, de l'influence des astres sur la sédimentation... Le public a été conquis !

Ce sont 50 personnes qui ont participé à ces animations qui se sont poursuivies bien au-delà de l'heure prévue.



"Entre ciel, Terre et mer, parcours découverte de la démarche scientifique"

A l'occasion de la célébration de son 350^e anniversaire, l'Académie des sciences a organisé cette belle journée de médiation scientifique sur tout le territoire d'Hendaye en collaboration avec des associations locales, la commune d'Hendaye et le CPIE.

C'est ainsi que le samedi 3 septembre, 52 personnes, dont 27 enfants, ont été accueillies par plusieurs membres de l'Académie des sciences et du CPIE sur le parvis d'Asporosttipi pour un pique-nique aussi convivial qu'instructif...

En effet, le public réuni devant notre bel établissement d'interprétation de la Corniche basque a bénéficié d'une intervention de M. Vincent Courtillot, géophysicien, membre de l'Académie des sciences et professeur à l'Université de Paris Diderot.



sinplea baino harago, eta udatik kanpo, Euskal Herria beste era batez ezagutu nahi dutelako.

Ondarea hobe ezagutu hobe babesteko, gure herria hobe ezagutu hobe ezagutarazteko... hau apustua! Noski, garrantzizko zeregina da eta ez zaio CPIE Euskal Itsasbazterrari honetaz baka-rrik arduratzea burutik pasa, zorionez!

"Flysch & Sheeps" eta "Ostegunetan, geologia!"

Erakusketa hau uztaila hasieraz geroztik Asporosttipiko lehen solairuan kokatua izan da, Lurreko biziaren historiari buruzko benetako denbora-bidaia, fosila eta dinosauroekin topo eginez. Aukera ederra, publikoarentzat, ondare honen hurbilpen zientifiko eta sentikorra ezagutzeko. Honekin batera, 2016an Nekatoenean

bitartekaritza egonaldian den Natacha Sansoz artistaren obrak erakusgai dira. Obra horietariko batzuk Senpereko laborantza lizeoko Goi Teknikari izateko bi ikasgelekin gauzatu egitasmo baten baitan sortuak izan dira.

Ostegun arratsaldero, geologia batzordeko boluntario bat edo beste bertan egon ziren Flyscharen, Pirinioen eta Euskal Erlaitzeko paisaien eraketaz gehiago jakin nahi zuen jendearen galderei erantzuteko. Orotara 298 bisitarik dute erakusketaren ezagupenerako laguntza honen onura izan.

Uda arratsalde baterako geologia hizketaldia

Uda honetan bi aldiz topaketa une atseginak eta parte hartzaileak animatu ditugu Asporosttipiren atarian, geologia eta astronomia gaiak

harturik. Zientzia kulturaren hedapenerako bi gaudi liluragarri, ingurune ezin ederragoan. Geologoen geologia "estraltarrak", Lurreko loturretaz, sedimentazioan astroek duten eraginez... mintzatzeko parada izan zuten. Jendea konkistatua izan zen!

50 bisitarik dute aurreikusia ziren ordutegiak baino luzeago iraun duten animazio horietan parte hartu.

Zerua, Lurra eta itsasoaren artean, zientzia izapidetaren ezagupenerako ibilaldia

Bere 350. urtemugaren ospakizunaren kari Zientzia Akademiak Zientzia bitartekaritza egun ederra antolatu zuen, Hendaia lurralde osoan eta lekuko elkarteekin, Hendaia herriarekin eta CPIE Euskal Itsasbazterrekin partaizetan.

S'appuyant sur l'exposition "Flysch and Sheeps", il a illustré la première étape de la démarche scientifique, celle du "constat", par la thématique de la fin du règne des dinosaures et du début de l'expansion des mammifères. Les groupes constitués à cette occasion ont ensuite poursuivi leur "rallye scientifique" à travers la ville.

Le Terre, comment ça marche ?

Cet automne le CPIE propose un cycle de formation ouvert à tous.

Composé de quatre modules thématiques composés chacun de deux interventions en salle et d'une sortie terrain, ce cycle permettra aux participants de comprendre : la structure et dynamique de notre planète, le système d'érosion et de dépôts qui marque le temps dans les roches, les déformations de la terre et la Terre à l'échelle humaine.

D'éminents spécialistes, tous membres du CPIE vont animer ce cycle : Thierry Juteau, Pierre Mauriaud, Guy Aubertin, Jean Marie Flament, Alistair Brockbank.

A ne pas manquer donc ! Mais attention, ce sera sur inscription préalable....

contact : cpieittoralbasque.sig@hendaye.com

FLYSCH AND GO !

En chemin vers l'Histoire de la Terre

Nous sommes entrés en contact avec différents acteurs géologiques du territoire dont les responsables gestionnaires du Geoparkea de la Côte basque (www.geoparkea.com). Ces acteurs importants d'Euskadi, conservent et valorisent le désormais célèbre flysch des falaises du côté de Zumaia, Deba et Mutriku. Leur travail est de si bonne qualité qu'ils ont obtenu le label international des Géopark (www.globalgeopark.org).



Horrela, irailaren 3an, larunbata, 52 jende, tartean 27 haur, bildu ziren Asporotstipiren atarian landa-bazkari goxo bezain ikasgarri baterako...

Izan ere, Euskal Erlaitzaren interpretazio gune eder honen aitzinean bildu jendeak geofisikaria, zientzia akademiako kide eta Paris Diderot Unibertsitatean irakasle den Vincent Courtillot-ren hitzaldiaz gozatu ahal izan zuen.

"Flysch & Sheeps" erakusketan oinarrituz zientzia izapidearen lehen urratsa irudikatu zuen, hau da "egiaztapena", dinosauroen erreinuaren amaiera eta ugaztunen espantsioaren hasieraren gaia hartuz. Kari horietara osaturiko taldeek "zientzia rallya" segitu zuten hirian zehar.

Lurra, nola dabil?

Udazken honetan CPIEk denei irekia den heziketa ziklo bat luzatzen dizu.

Gaikako 4 moduluz, bakoitzak bi hitzaldiz eta natura irteera batez osaturik, ziklo honek zera ulertzen lagunduko digu: Lurraren egitura eta dinamika, arroketan denbora markatzen duen higadura eta lur jalkitze sistema, lurraren deformazioak eta Lurra gure mailara.

CPIEren kide diren aditu ohargarriek dute ziklo honen animazioa bermatuko: Thierry Juteau, Pierre Mauriaud, Guy Aubertin, Jean Marie Flament eta Alistair Brockbank.

Beraz ez huts egin! Baina kasu, aurrez izena eman beharko baita...

harremanetarako:
cpieittoralbasque.sig@hendaye.com

FLYSCH AND GO !

Lurraren Historiarako bidean

Lurraldeko geologia arloko eragile ezberdinekin harremanetan sartu gara, horien artean Euskal Itsasbazerreko Geoparkekoak (www.geoparkea.com). Euskadiko eragile garrantzitsu horiek Zumaia, Deba eta Mutriku aldeko itsaslabarretako flysch famatua zaintzen eta balioztatzen dute. Beren lanaren kalitatea hain ona den Geoparkeen Nazioarteko Ziurtagiria jaso dutela (www.globalgeopark.org).

"Flysch and Go!" egitasmoa elkarrekin osatu genuen, eta ondotik Akitania Euskadi 2016ko egitasmo deialdirako aurkeztu genuen.

Berri ona! Egitasmoa onartua izan da! Horrela, joan den uztailaren 4an elkarlanerako hitzarmena izenpetu ahal izan genuen, Euro-erregioaren lehendakaria eta Euskal Itsasbazerreko Geoparkeko zuzendaria, Leire Barrusio, gurekin zeudela.

Batu zaigun Pirinio Atlantikoetako Departamenduko diru-laguntzarekin, "Flysch and Go!"-k euskal itsasbazerreko interes "geo-hezitzailea"

Nous avons bâti ensemble un dossier appelé "Flysch and Go !" que nous avons ensuite présenté à l'appel à projet de l'Eurorégion Aquitaine Euskadi 2016.

Berri ona ! Le projet a été retenu ! Nous avons ainsi pu signer la convention de coopération le 4 juillet dernier en présence du directeur de l'Eurorégion et de Leire Barrusio, la directrice du Géopark de la Côte basque.

Avec l'aide financière du Département des Pyrénées-Atlantiques qui nous a rejoint, "Flysch and Go !" va ainsi nous permettre de créer, d'éditer et diffuser une carte transfrontalière des points d'intérêt "géo-éducatif" du littoral basque.

Il s'agira d'un document scientifique rigoureux et attractif pour donner envie d'aller "de l'autre côté". La carte représentera un espace compris entre l'embouchure du Nervion à Bilbao jusqu'à l'Adour à Anglet en intégrant 10 km de profondeur à l'intérieur des terres. Les points seront choisis sur la base de leur intérêt éducatif et de leur facilité d'accès. La carte trilingue sera un outil de découverte et de sensibilisation destinée aux jeunes aquitains et basques. Elle facilitera l'accès de la population aux principaux points d'intérêt géologique de notre territoire et sera diffusée via les établissements du secondaire (collèges et lycées) du territoire de l'Eurorégion.

Deux journées de formation transfrontalière seront organisées pour les enseignants et quatre classes "pilotes" expérimenteront une offre pédagogique commune confectionnée par les équipes du Géopark et du CPIE. Ce projet va ainsi rythmer l'année scolaire 2016/2017 et d'ores et déjà une page facebook dédiée permet de suivre l'avancée de ces actions.

www.facebook.com/Flysch-and-GO

L'atelier de lavage des marnes pour en extraire des nannofossiles de la fin du Crétacé s'est révélé aussi scientifique que ludique...

duten lekuen mugaz haraindiko mapa sortu, argitaratu eta zabaltzeko aukera izanen dugu.

"Bestaldera" joateko gogoia emanen duen zientzia dokumentu bat izanen da, zorrotza eta erakargarria. Bilboko Nerbioien itsasoratzetik Angeluko Aturrirerainoko eremua irudikatuko duen mapa izanen da, lurren barnealdeko 10 kilometro barneratuz. Lekuak, duten heziketa interesa eta irismen erraztasunaren arabera hautatuko dira. Hiru hizkuntzatan izanen den mapa euskal eta akitaniar gazteei zuzenduriko aurkikuntza den sentsibilizazio tresna izanen da. Biztanleriari lurralde honetako geologia interesa duten leku nagusietarako sarbidea erraztuko dio eta Euro-erregioaren lurraldeko bigarren mailako ikastegien bidez zabalduko da (kolegioak eta lizeoak).

Irakasleentzat mugaz haraindiko bi heziketa egun antolatuko dira eta lau ikas-talde "piloto"-k Geoparkearen eta CPIEren taldeek elkarlandutako eskaintza pedagogikoa esperimentatuko dute. Egitasmo honek 2016/2017 ikasturtea markatuko du eta dagoeneko honi zuzenduriko facebook orrialdeak ekingen aitzinamendua jarraitzeko aukera ematen du.

www.facebook.com/Flysch-and-GO

Des vacances originales...

Tracy Portilla

cpielittoralbasque.creation@hendaye.com

Cette année encore les Vacances réCréatives ont connu un franc succès. Chaque module conçu pour les 8/12 ans permet aux enfants de venir à Nekatoenea sur le Domaine d'Abbadia pendant 4 demi-journées pour profiter d'un atelier art & science.

De la fabrication en céramique de petites bêtes trouvées sur l'estran à marée basse, du travail d'impression pour créer un livre d'artiste reprenant la forme du flysch de nos falaises, de la création d'êtres vivants imaginés en matériaux de récupération en jouant les paléontologues, en passant par la technique du collage à partir de photographies du château, les enfants ont pu laisser aller leur imagination et leur esprit créatif tout en apprenant de nouvelles techniques artistiques et en découvrant la biodiversité du domaine.

Sortie en baie de Loya pour prendre les empreintes des rochers, préalable nécessaire à la phase de création artistique avec Jana Lottenburger.

